

Hitzaurrea



asmin izenez bataiatu zuen Walt Disney-ek berez Badrulbudur zena, *Aladin* liburu sonatuan agertzen den pertsonaia. *Behinola* honetan, aldiz, hainbat pertsonaia agertuko dira, guztiontzat ezagunak eta inork izenik aldatuko ez diena. Izan ere, *Behinola* honetan pertsonaia baten inguruan eraikitako serieen gainean hitz (idatziko) egingo dugu.

Hitz eta Pitz atalean, protagonista baten inguruan serie bat sortu duten zenbait euskal idazlerekin bildu da MIEL ANJEL ELUSTONDO. Artikuluan birpaso labur bat egiten da euskal haur-literaturan sortutako pertsonaien gainean, gero serie bilakatu direnak. Horrela, Toti Martínez de Lezeak (Nur), Juan Kruz Igerabidek (Jonas), Mikel Valverdek (Rita), Patxi Zubizarretak (Usoa), Kirmen Uribek (Garmendia) eta Mariasun Landak (Iholdi) egindako hausnarketak bilduko dira.

Hitzontzin, JUAN KRUIZ IGERABIDEK sortutako ipuinarekin, *Hiru zomorro eta erdi*, gozatzeko aukera izango dugu. Euliarena, arkakusoarena eta erleena kontatuko digu Juan Kruzek, hiru istorio labur bezain zoragarri.

Hizpiden, SEVE CALLEJAK dio pertsonaia baten inguruan eraikitako serieak oso lotuta daudela haur- eta gazte-literaturarekin (*Bostak*, *Harry Potter*, *Espacio Flanagan*, *Bob Esponja*, *Caillou*, *Bambulo*, *Gerónimo Stilton*, *Nur*, *Kika*, *Greg*...). Jakina den moduan liburu bakoitzean istorioak ezberdinak izango dira, nahiz eta pertsonaiak berak izan, nagusiak bai bederen. Horrek garai batean herri-literaturak betetzen zuen hutsunea betetzen du orain.

Hitzordun, ITZIAR ZUBIZARRETAZ zuzendutako proiektuaren berri emango dugu, Galtzagorri Elkartek bultzatuta eta kudeatuta. *Kontuari kontu* euskal tradiziozko ipuin-bilduma bati ematen dio izena, lau ipuin eder tradizioz hartu, moldatu eta gaiez eguneratu direnak. Askorentzat ezagunak izango dira ipuinak, baina seguruen hainbat haurrentzat ez, tradiziozko iturriari ez baitzaio txorrotada behar lukeen indarrez ateratzen eta. Artikuluan, aretoaren nondik norakoa azaltzen da, nork hartu duen parte, zertan datzan...

Hitz beste atalean, ohi denez, hainbat nobedaderen erreseinak irakurtzeko aukera izango dugu. Horien bitartez gure irakurketa osatzeko aukera izan dezakegu, aditu baten ikuspegiarekin.

Hitzatzean, PATXI ZUBIZARRETAK, euskal talde batek, IBBYk antolatutako batzarrean (*Crossing boundaries: translations and migrations*) egindako egonaldiaren berri emango digu. Galtzagorri Elkarreak (Etxepare institutuarekin eta OEPLIren laguntzarekin) *Paperean hegan* ikuskizuna aurkeztu zuen bertan. Egitasmoaren helburua euskal haur- eta gazte-literaturaren argazkia erakustea zen; horretarako, ikuskizunaz gain, zenbait material banatu eta erakutsi zuen bertaratutako euskal taldeak.

Hemendik gure eskerrak eta zorionak ESTIBALIZ JALONI egindako lanagatik, haren ilustrazioek edertuko eta aberastuko baitu gure aldizkari hau.

Azkenik, nabarmendu eta zoriondu honako lagun hauek: Iban Zaldua *Azken garaipena* (Ikastolen Elkarrea, 2011) (Behinola 25, 47. orria) komikiarekin 2012ko Euskadi haur- eta gazte-literatura euskaraz irabazteagatik; eta Iban Barrenetxeari *El cuento del carpintero* (A buen paso, 2011) liburuarekin 2012ko Euskadi haur- eta gazte-literatura saria gaztelaniaz bereganatzeagatik.